

OROITZAPENEN INDARRA ETA EMOZIOEN BALIOA



IDAZLEA: Maitane Perez

ILUSTRATZAILEA: Nerina Vallejo



CC BY-NC-ND 4.0

AURKIBIDEA

1 Ipuinari buruz

2 Galderak

3 Jarduerak

4 Gutun baten egitura



Doluairen eta emozioen lanketa egiteko
baliabidea:

HAIZENE ETA OROITZAPENEN INDARRA



Emozioen eta doluairen lanketarako baliabide honen bidez haurrek, ipuin baten bitartez, arakatuko dituzte sentimenduak, oroitzapenen zuhaitza sortuz eta oroitzapenezko lepokoa eginez, emozioak modu esanguratsu eta hurbilean ulertu eta adierazten lagunduko diegu.

Landuko diren helburuak:

- Oroitzapenen balioa sustatzea, une bereziak bizirik mantentzeko eta maite ditugunak hurbil sentitzeko.
- Haurrei emozioak (tristura, nostalgia, maitasuna, poza) identifikatzen eta partekatzen laguntzea.
- Taldean errespetu eta laguntza emozionala sustatzea.

SORTZE DATA: 2024KO URRIA

HAIZENE ETA OROITZAPENEN INDARRA



ZER KONTATZEN DU IPUINAK?

"Haizene eta Oroitzapenen indarra" baso koloretsu batean kokatutako istorio hunkigarria da, non animaliak elkarrekin bizi diren, elkartasuna eta laguntasuna oinarri hartuta. Protagonistak, Haizene azeriak, Amonatko Dortoka galdu eta gero, doluari aurre egiten dio lagunekin batera.

Basoko amonako Dortoka, basoko animaliei ipuinak kontatzen dizkie eta haren ahotsak lasaitasunez betetzen du inguru guztia. Haren heriotzak hutsune handia uzten du eta animalia guztiek haren irakaspenak eta maitasuna faltan sentitzen dute. Baina, Haizenek eta basoko lagunek erabaki dute modu berezi bat sortzea amonaz oroitu eta haiengandik hurbil mantentzeko.

ZER EGITEN DUTE HAIZENEK ETA BASOKO ANIMALIEK AMONAZ OROITZEKO?

Oroitzapenen zuhaitza landatzen dute, hosto distiratsuz eta lore ederrez betea. Zuhaitz magiko honetan, animaliek amona Dortokarekin bizitako momentu zoriontsuak irudikatzen dituzte. Hosto bakoitza oroitzapen berezi bat da, eta zuhaitza ikustean, Haizene eta bere lagunak amona beti beraiekin dutela sentitzen dute.

ZER IKASTEN DUTE?

Haizene eta bere lagunak ulertzen dute dolua emozio naturala dela, baina oroitzapenek maite ditugunak gugan betirako bizirik mantentzen dituztela. Zuhaitza ikusten duten bakoitzean, amonaren maitasuna eta jakinduria sentituz, tristura eta poza elkarrekin bizi direla ikasten dute. Emozioak adierazi eta besteekiko elkartasuna indartzeko aukera ematen dien istorio hunkigarria da.

GALDERAK

1. NOLA SENTITZEN DA HAIZENE AMONA DORTOKA HIL ONDOREN?

Zer sentitzen dugu maite dugun norbait falta denean?

2. ZER EGITEN DUTE HAIZENE ETA BERE LAGUNEK AMONA DORTOKA GOGOAN IZATEKO?

Nola laguntzen die oroitzapenen zuhaitzak haien tristurari aurre egiten?

3. NOIZ SENTITU DUGU GUK TRISTURA HAIZENE BEZALA?

Deskribatu momentu bat non zeure bizitzan tristura edo hutsunea sentitu duzun.

4. ZERGATIK DA GARRANTZITSUA GOGORATZEA?

Nola laguntzen digute oroitzapenek gure bihotzak sendatzen?

5. ZER EGITEN DU HAIZENEK ZUHAITZARI BEGIRATZEAN?

Nola sentitzen da? Pentsa norbait gogoratzen duzunean zuk nola sentitzen zaren.

6. NOLA LAGUNTZEN DIOTE LAGUNEK HAIZENERI MOMENTU TRISTE HONETAN?

Nola sentitzen gara lagunen babesa dugunean?

7. ZER IRUDIKATZEN DUTE OROITZAPENEN ZUHAITZEKO HOSTOEK?

Pentsa momentu polit batean, eta azaldu nola gogoratzen duzun.

8. ZURE USTEZ, NOLA SENTITZEN DIRA HAIZENEREN LAGUNAK OROITZAPENEN ZUHAITZA LANDATU ONDOREN?

Zer nolako lasaitasuna edo poza ematen die? Zer emango lizuke zuri?

9. ZER ESAN NAHI DU HAIZENERENTZAT "MAITASUNA BETIRAKO IRAUTEA"?

Nola mantentzen dugu maite dugun norbait gogoan eta bihotzean?

10. ZER DA ZURETZAT OROITZAPEN BAT?


Aukeratu oroitzapen polit bat eta azaldu zer emozio pizten dizun.



JARDUERAK

1. IRUDIAK KOLOREZTATU:


Margotu ezazu Haizene eta amonakto Dortokaren irudi hau gogokoan duzun moduan.



2. OROITZAPENEN HOSTOAK:

Haizeneren Oroitzapenen Zuhaitza eraikitzeke, bakoitzak hosto batean ikasle bakoitzak bere oroitzapen zoriontsu bat idatziko edota marraztuko du. Gogoratu, oroitzapen bat partekatzeak poza eta maitasuna zabaltzen dituela. Amaitutakoan, guztiok gure hostoak zuhaitzean itsatsiko ditugu, eta horrela, gure Oroitzapenen Zuhaitz berezia sortuko dugu.

Materialak: hosto forma inprimatuta dituzten paperak, margoak, arkatzak eta eranskailuak.





3. OROITZAPNEN LEPOKOA:

Maitasunaren eta oroitzapenen balioa islatzeko, lepoko berezi bat egingo dugu. Bakoitzak zenbait bolatxo edo pieza hartu beharko ditu, eta bakoitzean oroitzapen bat edo pertsona berezi bat gogoratuko du. Gure lepokoa amaitzean, maitasun eta oroitzapenen pisua sentitu ahal izango dugu, eta beti gogoan izango dugu gure bihotzean daramazkigula maite ditugun horiek. Materiala zinta edo sokatkoa, bolatxoak edo kolore ezberdinetako piezak, eranskailuak eta margoak.

4. SENTIMENDUEI BURUZKO GALDERA TXARTELAK:


Sentimenduei buruz hitz egiteko eta besteen emozioak hobeto ulertzeko, galdera txartel hauek erabiliko ditugu. Txartel bakoitzean galdera bat dago, eta haien bidez, tristura, poza, maitasuna edo hutsunea sentitzen dugun uneak aztertuko ditugu. Galdera bakoitzari erantzunez, gure emozioak partekatuko ditugu eta besteen esperientziei entzun ahal izango diegu.

Materialak: galdera txartelak, arkatzak eta papera.



5. AGUR GUTUNA:

Ariketa honek aukera emango digu gure artean ez dagoen pertsona maitatu bati gutun bat idazteko. Gutun honetan, esan gabe geratu zitzaigun guztia idatzi dezakegu: gure maitasuna, esker ona, edo barnean daramatzagun sentimenduak. Hau egiteak barruko emozioak askatzen lagunduko digu eta bihotza arintzeko modu bat izan daiteke, gure maitasuna oroimen eta oroitzapenetan gordez, landareek baina agur esaten ikasiz.



A series of horizontal dashed lines for writing, spanning the width of the page.

GUTUNAREN EGITURA

1. DATA: Goiako eskuineko aldean.
2. HASIERAKO AGURRA.
3. LEHENENGO PARAGRAFOA: Hasiera emateko lagunari zer moduz dagoen galdetu eta guri buruzko informazio laburra ere emango diogu.
4. BESTE PARAGRAFOAK: Kontatu nahi duguna idatziko dugu.
5. AMAIERAKO AGURRA: Agurtzeko esaldia idatziko dugu.
6. SINADURA: Beheko aldeko eskuinaldean gure izena/sinadura gehitu dugu.

